

ITZULPENGINTZA



Egileak:

LORENA FERNÁNDEZ GARCÍA
SORAIA GONZÁLEZ ANDRÉ
AINHOA RODRÍGUEZ MENDIZÁBAL

1.ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIAKO EUSKAL ITZULTZAILEAK: EGOERA ETA ESTATUS PROFESIONALA

Euskal itzulpenaren alorrean itzultzaile-talderik zaharrena eta handiena administrazioko itzultzaileek osatzen dute. 1980an Autonomi Estatutua onartu eta ondorioz Euskararen Normalizaziorako Legea eta hau garatzen duten zenbait dekretu indarrean sartu zirenetik ari dira lanean itzultzaileak euskal administrazioan.

Euskara normalizatzeko politikaren barruan, udal administrazioan, foru administrazioan eta gobernu administrazioan poliki-poliki itzultzaile postuak sortzen eta betetzen joan dira, gaur egun 150 itzultzaile baino gehiago daudelarik arlo horietan lanean.

Administrazioko eta justiziako euskal itzultzaileen egungo egoera:

1.- Postuaren ezaugarriei dagokienez ondoko hauek aipa ditzakegu: itzultzaile gehienek postuaren izena Itzultzailea da, hamar batena itzultzaile-interpretaria eta bakar batzuk teknikari laguntzaileak dira. Ia guztiak dira funtzionarioak eta antzinasunetik handieneko itzultzaileak foru administraziokoak dira. Udal administrazioan, halere, lan kontratadunak ere asko dira, eta bada 80tik kontratatuta lanean ari direnak.

2.- Prestakuntzari eta posturako eskatutako ezagupenei dagokienez gauza batean ia denek ezaugarri bera dute: lanpostua sortu zenean batxilergoa edo gehienez erdi mailako titulua eskatu zieten. Administrazio erakundeetan lanpostuen balorazioak egin zirenean erdi edo goi mailako ikasketekin parekatu zituzten. Parekatze hori kasu batzuetan automatikoa izan zen, dagoeneko ikasketa maila horiek bazituztelako, eta beste batzuetan, oposaketa bat gaindituz. Alde handiak nabari dira, ordea, postuari dagokion sailkapen taldeari edo maila hierarkikoari dagokionez. Oro har, foru eta autonomi administrazioan A eta B taldeetan daude, baita udal handietakoak ere, udal txiki eta justiziakoak, ordea, C taldean eta maila hierarkikoan baxuago ageri dira, soldata gordinean erlazio zuzenarekin. Maila hierarkikoan mailarik gorenetan daudenak Bizkaiko foru administrazioko itzultzaileak dira. Justiziako itzultzaileak dira guztien artean gutxien irabazten dutenak, urteko soldata gordina 2.000.000 pezeta ingurukoa daukatelarik.

3.- Postuaren funtzioa, zereginak eta jarduerak. Administrazioko eta Justiziako itzultzaile gehienek, lanpostuaren izenak agintzen dien eran itzuli egiten dute, eta kasu askotan orri asko itzuli ere. Alde nabarmen samarrak daude, ordea, administrazio mailen arabera: Eusko Jaurlaritzan, aldizkari ofizialean egunean 5-6 orri itzultzen omen dituzten bitartean (), Nafarroako Gobernuan egunean bataz beste 8-10 orri itzultzen dituzte. Gipuzkoako Foru Aldundiko itzultzaileek egunean 10-15 bat itzultzen dituzte, Bizkaikoek 10 bat Euskal Herriko Unibertsitateko itzultzaileen antzera, egunean 10-12 bat itzultzen dituztela aitortzen baitute. Zenbaki horiek txikiagoak dira udal

administrazioan, izan ere udal handiak kenduta (horietan foru administrazioen neurrietara iristen baitira) besteetan batz bestea egunean 5 bat orri itzultzen dituztelako.

4.- Lan-taldeetan esku hartzea atala bera bezain laburra da erantzunen sailkapena: itzultzaile gehienek ez dute beraien lanbidearekin zerikusia duen inolako lantaldeetan parte hartzen. Foru Administrazioako itzultzaileak, eta zehazkiago Gipuzkoakoak dira dudarik gabe eginkizun horretan gehien sartuta daudenak, itzultzaileen arteko talde bat osaturik baitaude eta HAEekin batera administrazio hiztegi bat lantzen ari baitira administrazio beste zenbait itzultzaileekin batera.

5.- Arau eta argibideak. Ze eratako lanak egiten dituzte Administrazioako itzultzaileek? Autonomia eta foru erakundeetako itzultzaileek arauak eta dekretuak, erabakiak, aginduak, ebazpenak eta inprimakiak itzultzen dituzte batez ere. Udal administrazioetako, berriz, aktak, agiriak eta inprimakiak, beraien lanean izarra aktak direla azpimarratzen dutelarik. Eta testu horiek itzultzeko orduan zein eratako aholkuak eta nori eskatzen dizkioten atalari emandako erantzunek garbi adierazten dute hitzak, adierak eta estilo arazoak direla zalantza gehien sortzen dizkietenak, eta horiek argitzeko legelari, ekonomista, zinegotzi, alkate, lankide, ahal dutenarengana jotzen dute. Bada gaztelarazko testua aldatzeko baimena eskatzen duela adierazten duenik ere.

6.- Administrazioako eta Justiziako itzultzaileen organigrama, bestalde, oso sinplea da, itzultzaile taldeak dauden leku batzuetan bakarrik (Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundietan eta Jaurlaritzan Aldizkari Ofizialekoak) daude hierarkikoki banatuta, eta banaketa hori oso sinplea da: badago arduradun bat eta beste guztiak haren menpean daude,.

7.- Lanaren hartzaileak. Administrazioak euskaraz egiten dituen ia idazki guztiak itzulpenak dira, .Horren arabera argi ikusten da honako hau: Administrazioak berak bere funtzionamendurako sortzen dituen testuak dira lehenik gehien itzultzen direnak (aktak, dekretuak eta arauak), inprimakiak eta herritarrei zuzendutako testuak daude jarraian, eta ondoren deialdiak, liburuak, iragarkiak eta abar.

Lan hizkuntzak, bestalde, lurraldeko bi hizkuntza ofizialak dira: lehenago esan den bezala ia dena gaztelaniatik euskararako itzulpena da, oro har oso gutxi itzultzen da euskaratik gaztelarara, eta bestelako hizkuntzak, frantsesa edo ingelesa oso noiz behinka erabiltzen ditu itzultzailearen batek foru administrazioan. Euskarara itzultzen da, beraz, eta gainera euskara batura.

Euskal Herriko Administrazioan eta Justizian interpretaritzaren erabilera, bestalde, nahiko zabaldua dago. Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan, Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinetan (hezkuntza, lana, eta abar.), hiru lurraldeetako batzar nagusietan, udal handi nahiz txikiagoetan, batez ere Gipuzkoan, epaitegietan eta

Euskal Herriko Unibertsitatean osoko bilkuretan eta batzordeen bileretan, eta epaitegien kasuan prozeduretan eta epaiketetan euskarak badu nahiko presentzia hedatua. Udaletxe askotan eta Justizian esanosteko interpretaritza egiten da nagusiki, batzar nagusietan, unibertsitatean eta parlamentuetan, berriz, aldiberekoa.

2. ITZULPENA AUZITEGIETAN ETA ADMINISTRAZIOAN

1.Zigor arloa

Auzitegietako itzultzaileek arlo honetan dute, beharbada, lanik latzena, batik bat, euren lanak dakartzan ondoreek oso eragin zabala hartzen dutelako euskal gizartean.

Adibidez:

Zelan itzuli beharko dira euskarara: *homicidio* eta *asesinato*? Izan ere, itzuli bai, itzuli egiten dira, baina nor den itzultzailea, ordain bat edo beste aurki liteke. Hori zuzendu behar den arazoa da, bestela, ezinezko gertatuko bailitzateke irakurle euskaldunarentzat jakitea zer irakurtzen ari den.

Jabetzaren aurkako delituetan ere, honelako kasuok azter ditzakegu: *robo*, *hurto*, *sustracción*, *apropiación indebida*. Hauek ere batu behar dira, eta modu batera itzuli, beti ere segurtasun juridikoari begira.

Eta zer jazotzen da, epaituek egiten dituzten aitorten eta adierazpenekin? Zer da itzuli behar dena? Zein da modurik egokiena itzulpena egiteko? Aldi bereko itzulpena ala esan ostekoa?

Arazo asko eta korapilatsuak dira horiek guztiak eta kontu handiz ibili behar da norbanakoen askatasuna kolokan dagoelarik. Hori dela eta, Euskal Herrian famatu bihurtu zen Camarero kasua aipagarria. Judizioaren une baten, fiskalak epaituari euskaraz itaundu zion ea pelea bat ikusi zuen; erruztatuak, berriz, hauxe ihardetsi zuen: Bai, jipoi bat ikusi nuen. Ageri denez, erantzuna gaztelaniara pasatzerakoan arazo bat sortzen da: *Sí, vi una paliza* (hitzez-hitzezko itzulpena) a la *Sí, vi una pelea* (itaunari eman beharreko erantzun logikoa). Ondoreak erabat ezberdinak izan daitezke.

2.Administrazioan

Auzitegietan itzultzaileek egin behar duten lanak gizartean eragin handia du, Administrazioan itzultzaileek egiten dutena, berriz, ez du ia oihartzunik gizartean.

Izan ere, Euskal Herrian bi hizkuntza ofizial daudenez, aukera dugu administrazio-agiriak hizkuntza bietan idatzita aurkitzeko, berbarako, aldizkari ofizialetan zutabe bikoitza erabiltzen da, ezkerretara euskarazko testua agertu eta eskuinetara gaztelaniazkoa ageri delarik.

Inprimakietan, aldiz, ondoko moduok erabiltzen dira: 1) aldizkari ofizialetan ageri den moduan, zutabe bikoitzekoa; 2) beste batzuetan, orrialde bat euskaraz, eta bestea gaztelaniaz; 3) goiera biko lerrokoa, lerro bat erdira, euskara goian eta gaztelania behean ageriaz; eta 4) modu askotariko inprimakiak: goiburuan, goiera biko lerroa edo euskara eta gaztelania bata bestearen ondoan, ezkerraldera ekarrita, ondoren lerro bat ageri delarik betetzeko, baina edukia zutabe bikoitzean.

3. ITZULPENGINTZA JURIDIKOA

1. Sarrera

Azken urte hauetan itzulpengintza juridikoan espezializatuta dauden pertsonen beharra gorantz egin du eta ondorioz, unibertsitate asko arlo honetako heziketa eskaintzen hasi dira. Hurrengo arrazoiak dira heziketa honen garapenaren oinarria:

- 1) Alde batetik, nazioarteko merkataritzak figura juridiko berri ugari sortu ditu, salerosketa kontratuak, aseguru eta garraio kontratuak, etab. nazionalitate desberdinen arteko harreman juridikoak sortuz.
- 2) Bestetik, organizazio politiko – ekonomiko berrien sorketa, hala nola, Europar Batasunak bere kideek aplikatzeko legeak ematen ari da eta ondorioz, hauek itzultzeko beharra dago.
- 3) Hirugarren faktorea: globalizazioa, hau da, hiritarren mugikortasun internazionala eta nazioarteko turismoak eragina izan du arlo juridikoan, adibidez: atzerritarrak beste herrialdean testamentua egitea.

Azkenik, itzulpengintza juridikoa prestakuntza espezializatua eskatzen du eta gaur egun gutxi dira arlo honetan ezagutza dutenak.

2. Zer da itzulpengintza juridikoa?

Itzulpen mota hau bi arlotan aurkitu dezakegu:

- Egoera juridiko baten barruan:

Kasu honetan, egoera desberdin aurkitu daitezke eta hauek modu desberdinean itzultzen dira: egoera administratiboa, prozesala (salaketa, kereila, erregu...), legislatiboa (legeak), kontraktuala, etab.

- Testu juridikoen itzulpena:

Hizkuntza batetik bestera pertsona fisiko eta juridikoen arteko harremanetan ematen diren dokumentu juridikoen edo teknikoen itzulpena (testamentua, kontratua).

Itzulpengintza juridikoan bereizi behar da bi jarduera mota: itzulpengintza idatzia eta interpretazioa, baina nagusiena lehenengoa da, harreman juridikoan dokumentuetan eratzten direlako.

Arlo honetan bat-bateko itzulpenak beste modalitate desberdina da eta epaiketetan erabiltzen da prozesuan zehar Epaileak zenbait dokumentuen itzulpena eskatzen duenean (akta bat irakurri edo frogatutako dokumentala itzuli).

Esparru juridikoan interpretazioa ere erabiltzen da. Epaiketetan geroz eta gehiago beharrezkoa da auzi juridikoetan atzerriko herritarren parte hartzeagatik. Teknika hau galdekietan, lekukoaren aurrez aurrekoan, etab.

Gai honen izaerari dagokionez, itzulpengintza juridikoa profesionalizatua da.

Horrela bada, kontuan hartu behar da ez direla gauza bera **itzulpen juridikoa** eta zinpeko itzulpena. **Itzulpen juridikoa** mota askotarikoa izan daiteke, lehen itzulpena, erreguena edota prozesal itzulpenak, lehen aipatu bezala. Gainera, lehen itzulpena era desberdinetan egin beharreko lana da itzulpen horren helburuaren arabera. Itzulpen juridikoa, hizkuntza espezializatu baten itzulpena da, eta hau dela eta, arau bereziak ditu. **Zinpeko itzulpenak**, bestalde, beste hizkuntza batera moldatutako testu baten bertsioa da zeinetan zinpeko itzultzailea, fede-emaile publikoen funtzioen antzera, fede ematen duen testu originalaren egokipenari buruz. Kasu batzuetan dokumentu juridikoak izango dira itzulpen hauen helburu, baina beste askotan ez.

3. Itzulpen juridikoa

Itzulpen hauek, beste edozein itzulpen mota bezala, ezinbesteko bi atal ditu:

- **Testu juridikoaren irakurmena eta ulermena.** Lan hau ezinezkoa da itzultzaileak ez badu ezagutzen eta ulertzen testu juridikoa osatzen eta ezaugarritzen duten hitz teknikoak.

- **Itzulpen juridikoaren idazlana.** Itzulpenaren bigarren atal hau egin ahal izateko, itzultzailea teknikotasun juridikoak idatzi eta ezin hobeto ezagutu behar ditu norako hizkuntzan eta hizkuntzan honen menperatzea. Kontu izan beharrezkoa da testu juridikoen idazmenean hauen egitura formala eta zurruna, kasu gehienetan. Hau horrela ez bada ulermen okerra izango du ondorio.

Guzti hau gogoan hartuta nabaria da sorterriko itzultzaileen beharra arlo honetan.

4.Itzulpen juridikoa egiteko iturriak eta baliabideak

Dударик gabe testu bat itzultzeko erabiltzen dugun lehen tresna hiztegi bat da, hala ere gehienetan tresna hau ez da nahikoa, hitzen erabilpenaren arloa bereizten ez bada itzulpen okerra egingo dugu seguruenik horrek dakarren ondorio serioekin, batez ere arlo juridikoan. Horregatik, hiztegiak gain hurrengo baliabideak kontuan izan behar dira:

1.Argitaletxe juridikoak: Badira argitaletxeak zeintzuk nazioarteko edukiak eskaintzen duten. Tirant Online-ek nazioarteko legislazioaren atalean testu hauen itzulpen libreak aurkitu ditzakegu.

2. Argitaletxe espezializatuak: Zenbait editorial espezializatuak testu elebidunak saltzen dituzte. “Internacional Legal Publications” argitaletxean gure Zibil Kodearen elebidun argitalpena aurkitu dezakegu.

3. Juristen elkarteak: Elkarte hauek aldizkari eta liburuak argitaratzen dituzte lege eta kontzeptu juridikoan aztertzen.

4. Beste elkarteak: adibide bitxi bat, ATIME (La Asociación de Inmigrantes y Trabajadores Marroquíes de España) Marokosean aplikatzen den famili kodea argitaratu du bere web orrian gaztelaniara itzulita.

Euskara hizkuntza arloan, aipamen berezia egin beharra dago Deustuko Unibertsitatearen liburutegi juridiko elebidunari. Bertan lege testuak eta hiztegi juridikoak aurkitu ditzakegu modu elebidunean (gaztelania-euskara), Deustuko Web orrian eskuragarri daudenak. Eta baita IVAP-arekin batera, hauek euskaraz argitaratutako zuzenbideko eskuliburuak ere.

5.Bibliografia

- **Euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkarte**
<http://www.eizie.org/Argitalpenak>
- **Asetrad: Asociación Española de traductores, correctores e intérpretes**
<http://www.asetrad.org/index.asp?op=12a1>
- **Gitrad: Web del traductor jurídico**
<http://www.gitrad.uji.es/es/content/traducci%C3%B3n-jurada>